

Kostuen egitura

Gure proiektua aurrera eramatea gastu batzuk dakartza. Enpresaren kosteak hiru zatitan banatu ditugu: **hasierako gastuak, koste finkoak eta koste aldakorrak.**

- **Hasierako kostuak:**

Hasierako kostuak, enpresa sortzean izango ditugun kostuak dira. Kostu hauek jasan ostean, ez ditugu berriz izango.

Patentea. Gure zerbitzuaren patentea Espainia Patente eta Marken Erregistroan erregistratzea **74,92€** balio du.

Tableten erosketak. Lan egiteko, ordenagailuak erabili beharrez, tabletak erabiltzea erabaki dugu. Horrela, lan egiteko behar dugun tresna edonora eraman dezakegu. Aukeratu dugun modelo "Lenovo Tab M10" da eta [Media Markt](#)-en erosiko dugu. (129€ tablet bakoitza, beraz, 129 X 4 = **516€**)

Mugikorren erosketak. Gure artean eta bezeroekin hitz egiteko, kide bakoitzak mugikor bat izango du. Modu honetan, gure bizitza pertsonala eta bizitza profesionala bereiztea lortuko dugu. Aukeratu dugun mugikor modelo "Samsung Galaxy A40" da eta [Phone House](#)-n erosiko dugu. (199€ mugikor bakoitza, beraz, 199 X 4 = **796€**)

- **Koste finkoak:**

Kostu finkoak ekoizpena aldatuta ere konstante mantentzen diren kostuak dira.

Aplikazioa Play Store-n publikatzeak suposatzen duen kostua eta aplikazioaren mantenimendua. Alde batetik, Hiberus enpresarekin hitz egin behar dugu kuota bat ordaintzeko hilabete bakoitzean.

Bestalde, gure aplikazioan app store (apple) sarean egoteagatik urtero **89,10€** ordaindu behar izango ditugu (99\$) eta play storren egoteagatik (android) urtero **22,50€** (25\$). *Guztira 111,16€* dira.

Enpresaren mugikorrek behar duten mantentze-lana eta tarifa.

- **Koste aldakorrak:**

Kostu aldakorrak edo aldagarriak, hilero zifra berdina ez duten kostuak izango dira. Hilero kostu desberdina izango dugu zenbait aspektutan, gure aktibitatearen arabera aldatuko direnak.

Publizitatea, kostu aldakorra izango da. Hilero publizitatean gastatuko dugun kantitatea desberdina izango da; abenduan, adibidez, gabonak direla eta, diskotekek izango dituzten jaiak ugariak izango dira, beraz, denboraldi horretan publizitate gehiago egingo dugu.

<u>Hasierako kostuak</u>	
Patentea	74,92€
IPE	516€
Publikatze gtua.	111,16€
Mugikorrak	796€
Guztira:	1.498,08€

<u>Kostu finkoak</u>		<u>Kostu aldakorrak</u>	
Aplikazioaren mantenimendua	111,16€	Publizitatea	X€
Mugikorren tarifa	X€		